

KOMUNITATEA

Komunitate batean eta pertsona-herri batean bizi gara. Habitat natural horretan sustatu nahi da José María Arizmendiarrieta jaunak asmatu, bultzatu eta sustatu zuen eraldaketa sozial guztia. Banakako zortasunak gainditzeko pertsona integratuen, kooperatibisten eta kooperatiben komunitatea.

Ez dago komunitateaz hitz egiterik harremanak eta elkarbizitza indarrezko egoeretan oinarrituta baldin badaude. (p 82).

Denok gara uste duguna baino zordunago besteei. (p 298).

Ezin dugu gure burua sozializat eta justuzat eduki eta den-denok komunitatetik eta aurreko belaunaldietatik jaso duguna ahaztu, horren ordainetan dagozkigun ekarpenak egin barik. (p 299).

Nork bere morrontzak gainditzeko, oinarri sozial zabaleko egitura komunitarioak sendotu behar dira. (p 315)

Jabetza pribaturako eskubidea ona da, baliagarria baita titularraren askatasuna mantentzeko, baina inondik ere ez gainerako gizakien askatasuna zapaldu, mugatu edo galarazteko. Beraz, gurea denarekin gure nortasunarendako komenigarriena dena egin beharko dugu, nortasun hori zein komunitate barruan dagoen kontuan hartuta, hori kontuan hartu ezik, gainerakoak kaltetu genitzake eta. (p 330).

Kooperatibismo osasuntsu baten oinarrian erantzukizuna zentzu sakona duten pertsonak egon beharko dira, prozesu ekonomikoan zuzenean inplikaturik eta beraien komunitateko presio sozialaren menpe dauden pertsonak, alegia. (p 125).